

# **FUNTSEZKO ELKARKETAK**

## **BAZKIDE ETA HORNITZAILE NAGUSIAK ENPRESAK FUNTZIONA DEZAN**

- **Arkitektoak.** Haien laguntza beharrezkoa izango da gu erosiko dugun eraikina berritzeko.

**Sukia.** Donostiako arkitekto enpresa bat da. Eremuak planifikatu eta kudeatzen dituzte, zure beharrak asetzen dituzten proiektuak garatuz. Pertsonen eskaerei eta beharrei erantzuten dieten espazio integratuak sortzen dituzte.



<https://www.sukia.com/es>

- **Albaitariak.** Hauen funtzioa animaliei (kasu honetan txakurrak) eragiten dieten gaixotasunak diagnostikatzea, iragartzea, tratatzea eta prebenitzea izango da.

### ***Kivet.***

Kivet Espainiako eta Portugalgo albaitaritza-kliniken sarerik handiena da eta 50 zentro baino gehiago ditu Espainia eta Portugal artean. 250 albaitari-profesional baino gehiago ditu zure zerbitzura. Albaitaritza-zerbitzu ugari ditu, zure lagun onenak bizitzako etapa bakoitzean dituen beharretara egokitzen diren osasun-plan pertsonalizatuak.

Taldeak arreta pertsonalizatua emateko konpromisoa hartu du, eta ahalegina egingo du zure maskota osasuntsu eta zoriontsua izan dadin.



- **Garbitzaileak.** Bi motatako garbitzaileak izan beharko ditugu. Alde batetik, gunea ahalik eta garbien egoteaz arduratuko direnak; eta bestetik, txakurren garbitasunaz arduratuko direnak.

***Rivera (Gunea garbitzen dutenak).***

Enpresa edo erakundeen eraikinak garbitzeko eta mantentzeko garbiketarekin eta zerbitzu osagarriekin zerikusia duen ezertaz kezkatu behar ez izatea da haien helburua. Konponbideak eskaintzen dituzte mota guztietako eraikinak garbitzeko eta mantentzeko. Ere, eraikinak garbitzeko, diziplina anitzeko ekipoa, makineria espezializatua eta berariazko ezagutza erabiliko dituzte.



<https://www.limpiezasrivera.com/servicios/limpieza-de-edificios>

***Miscota (Txakurrak garbitzen dituenak - Ile apaindegia).***

Txakur bakoitzarentzat egokiak diren ebaketa-teknikak lantzen dituzte. Modu positiboan maneiatzeko prozedurak erabiltzen dituzte, txakurra lasai eta erlaxatuta egon dadin azala eta ilea moztu, lehortu eta garbitzean. Eta askoz gehiago haien SPA txakurrentzat erabiltzen badute.

Haien zerbitzu guztiak barne hartzen ditu: Masaje bainua, azkar lehortzea, azazkalak moztea, belarriak garbitzea, arrazaren araberako ebaketa, ile motaren araberako lan-teknika eta perfumea.



<https://maskokotas.com/servicios/servicio-peluqueria-canina.html>

- **Entrenatzaileak.** Txakur-entrenatzaileak txakurrak hezteaz eta trebatzeaz arduratuko diren langile profesionalak dira.

#### ***Box txakurrenea.***

Txakurren hezkuntzak, askorentzat ezezaguna den arren, funtsezkoa izan beharko luke edozein txakurrentzat. Izan ere, abantaila asko ditu, gizakiarekiko lotura eta egonkortasun emozionala hobetzen laguntzen baitu. Hezkuntzak kumetatik hasi beharko luke, baina txakur heldu bat baduzu, oraindik ez da berandu.

Zure maskota hezteko gauzarik garrantzitsuenetakoa da behar diren tresna eta instalazio guztiak izango dituen eta Box Txakurrenea bezalako kualifikazio handiko langileak izango dituen konfiantzazko zentro bat aurkitzea. Txakur-heziketan espezializatutako maskotentzako zerbitzu bikaina eskaintzen dio bezeroari, tratu pertsonalizatua eta kasu bakoitzaren beharretara egokitua.

Hainbat arlo lantzen dituzte entrenatzaileak. Esate baterako jokabide-aldaketa, txakurkumeentzako klase bereziak taldean edo bakarka etab.

<https://www.diariovasco.com/suplementos/brandedcontent/mejores-servicios-mascota-20210504181703-nt.html>

- **Gidariak.** Hauen beharra ezinbestekoa da txakurrak zentrorra eramateko eta etxera itzultzeko.

Autobus bat erosiko dugu kaiolekin txakurrak bidaia lasai egiteko zentrotik etxera eta etxetik zentrorra eta autobus gidaria prezioaren barruan egongo litzake.

Bidaiariaren erosotasuna eta segurtasuna zaintzen dugu, hauen beharrak asetzeko.




- **Txakurren janari-hornitzailea.** Txakur bakoitzaren beharraren arabera dieta bat xehetasun guztiakin sortzen dituen enpresa bat gurekin lan egitea nahiko dugu. Zure txakurraren ezaugarrietan eta nutrizionista- eta albaitari-taldearen ezagutzan oinarrituta, bazkari pertsonalizaturako errezeta bat diseinatuko duen enpresa izango da.

**Happets.** Aukeratu dugun enpresa *Happets* da, txakur bakoitzaren beharraren arabera dieta bat sortzen duelako xehetasun guztiakin. Zure txakurraren ezaugarrietan eta nutrizionista- eta albaitari-taldearen ezagutzan oinarrituta, bazkari pertsonalizaturako errezeta bat diseinatuko dute.

Zerbitzu honen aurrekontua txakurraren tamainaren araberakoa da. Beraz, txakurrak geroz eta pisu gehiago izan garestiagoa izango da. Hala ere, 10-65€ artean dago txakur bakoitzaren janariaren prezioa.

<https://www.happets.com/>





- **Txakurren produktuen hornitzailea.** Txakurren beharretan oinarritutako produktuen enpresa bat beharko dugu. Jostailuak, oheak, jan eta edateko ontziak etab. produktu hornitzen dituen enpresa.

### **Nayeco.**

1983tik, Nayecok gure maskotentzat bereziki egokiak diren artikuluak ekoizten eta inportatzen ditu. Zure maskota edozein dela ere, Nayecoko profesionalak zure lagun onenen beharretara hobekien egokitzen den produktua aurkitzen laguntzen gaitu.

Mota askotako produktuak ekoizten dituzte hona hemen beharko ditugun adibide batzuk.



Oheak, neurri desberdinetakoak edukiko ditugu, txakurraren tamainaren arabera.



Jateko katilua (bakoitza bi txakurrentzat izango dena)



Hainbat jostailu

<https://www.nayeco.com/es/9110-perros>